



1. "Etxean kontu-kantari"

Jolaserako lehenengo proposamenarekin, haurrak sei hilabete dituenetik aurrera hasi zaitezket. Haurrak handitzen direnean, txikiekin jolasteko aproposa da. "Arre-arre mandoko" jolasak gorputzaren eitea (tonizitatea) suspertzen du. Zenbaitetan, festatxoak egiten dira etxean: ongi etorri bat, norbaiten urtebetetzea... "Hain urrin etxe poxpola" kanta antzezteko aproposa dugu, kantaren melodia ederra da eta haurren oso gustukoa. Zeinentzat da azken pastel puska? erabakitzeko kantutxo dibertigarria: "Arriola-marriola, kin kuan kin..." Korroan aritzeko jolasak dibertitzeko sortu dira: kantatzeko, dantzatzeko, koreografia txikiak osatzeko: "Baketxe kalean" ezaugarri horietan sartzen da... Bukatzeko, entzuteko, kontatzeko, amets egiteko ipuin eder bat: "Ilargia gazta handi bat da". Badakizue non dauden: "Etxean kontu-kantari" atalean. Gozatu!

2. "Ipuinez ipuin"

Opor aurreko proposamen bat luzatu nahi dizuegu oraingoan. Txikien babesa eta haiek pairatzen dituzten arriskuak daude kontakizun honen oinarrian, eta Manuel Lekuonaren *Txuri ta gorri ta kikiriki* bilduman aurkitzen dugu: Pio-pio jolasa. Garai batean, harrapaketa jolas bat izango zen, seguruena: gabiraia oilategian agertzen denean, oiloak babesten ditu bere txitak. Oiloa da babesa, etxea; gabiraia txitak harrapatu nahi ditu eta haiek harantz eta honantz dabilta ihesi, babesa aurkitzen duten arte. Oinarri hori du *Mariagoikoarenak* jolas liburuan agertzen den *Etorri da oilarra, bat eta bi* eta aurreko jolasa, hitz joko bihurtzen du Anjel Lertxundik eta ilustrazio jokoa Antton Olariagak. Antzeppen bat egitea proposatzen dizuegu guk. Ikasturte bukaeran norbaiti eskaintzeko, etxeko festa batean familiaren aurrean egiteko...

Abrite portas, klis-klas!

3. "Gela barnean"

Igarkizunak dira, seguruena, haur hitz-jokorik aberatsenak, eskaintzen dituzten aukerak kontutan izanda. Batetik, haurrak ezkutuan gordetzen den objektu batekin jokatzeko; objektuaren izena, izana eta irudia haurren buruan argi azaltzen bada ere, ez da hala agertzen asmatu behar duenarenean... Hizkuntza hausnarketak egiteko espazioak irekitzen dira beraz, igarkizuna sortu eta igarri behar duenaren artean. Igarkizun on batek hizkuntzaren formak, esanahiak eta legeak auzipean jartzen ditu; izan ere, hizkuntzaz eraldatzen den deskribapen batean oinarritzen da. Baina zenbaitetan, nahastu egiten ditugu igarkizunak eta deskribapenak; igarkizunak aipatzen ditugunean hitz-joko, errimak, irudi poetikoak erabiltzen dituzten egituraz ari gara. Aspaldian kaleratu eta agortu zen Xabier Olasoren Auskalo! liburua 2013an berrargitaratu zuen Galtzagorri, berriz ere, Agurtzane Villate ilustrazioak erabiliz, Klis-klasikoak bilduman. Ezinbestekoa da liburu hau 5 eta 8 urte bitarteko haurren geletan.

4. "Egitasmoa martxan"

Euskarazko Haur eta Gazte Literaturaren sustapenenean egindako lanagatik Urrezko Luma Saria jaso zuen ekainaren 2an Galtzagorri Elkarteak Euskadiko Liburu Ganbararen eskutik. Elkarteko lehendakari Iñaki Markotegik Galtzagorri Elkarteko egitasmoetan parte hartzen dutenei eta babesten dituztenei eskerrak eman zizkien. Besteak beste, "Bularretik Mintzora egitasmoaren bidez, irakurketaren mundu zoragarria gurasoekin batera deskubritzen hasten diren ume guztien izenean" eman zituen eskerrak. Berri ezin hobea, zalantzarik gabe, ikasturteari agur esateko. Irailean gehiago!